

Maddi Aiestaran Iparragirre

A maila • 2 saria



Tren-geltokiak xarma berezia du. Gogoko dut trenaren zain egotea. Eta trena iristen denean, aulki bakarti batean esertzea, jendeari begira, xehetasun orori begira. Pertsona arrotzeneri erreparatzen diet; euren begirada, ibilera, ahotsa... , eta euren bizitza imajinatzen hasten naiz: “nongoa ote da, nondik ote dator, nora ote doa, haserre ote dago, zoriontsu ote da...”. Eta aldian-aldian, imajinazioa hitz bihurtu eta nire pareko eserlekuan bidaiatu zuen pertsona arrotz hura istorio bateko pertsonaia printzipal bihurtzen da. Istorio honetan bezala. Amorruren eta ulerkortasunaren arteko borroka gaiztoan murgilduta dagoen pertsonaia bat dakarzueta, EZari BAIa gailendu ohi zaiola erakutsiko diguna.

EZBAIAN

Hurrengo geltokia: Ordizia

Ordizian ezagutu omen zenuten elkar. Bertako pub arrakastatsu haietako batean gurutzatu omen ziren lehen aldiz zuen begiradak, eta segituan sentitu omen zenituzten tximeletak dantzatzu zuen sabeletan. Bata bestearentzat eginak zeundeten, antza. Bat-bateko maitemina deitzen diote horri. Ze polita! Hantxe jarri zenituzten zuen maitasun ahalguztidunaren zimendu sendoak...

Sendoak ez, sendo ustekoak. Azken hilabeteetan pitzatzera eta zartatzera kondenatu dituzun zimenduak sendoak zirelakoan geunden guztiok. Oso ongi antzeztu duzu urte hauetan guztietan aita arduratsu eta ezin hobearen papera, senar perfektuaren paper inbidiagarria. Ordiziako pub haietako batean zure arreta osorik bereganatu zuenari behinola konbentzimendu osoz hitz emandakoa hautsi duzu, ordea. Tximeleta menderaezinek sabela inbaditu omen dizute. Zuk ez zenuen nahi, baina gertatu egin da. Errukarria zu!.

Baina zuk ez al zenuen ba ikaragarritzko kontrola zure buruarengan? Ene bada! Zer gertatu zaizu? Gogoratzen dituzu Anderri eta bioi botatzen zenizkizun diskurtso irmo bezain pedante haiek? Zuzentasunaren eredutzat izan zaitugu beti. Gaur, “mitoa” erori zaigu, ordea. Bularpare eta ipurdi tenteago batzuk paratu zaizkizu begien aurrean, eta tentazioan erori zara, lerdetsu hori. Popatik hartzera bidali duzu dena. Den-dena. Gorroto zaitut!

Hurrengo geltokia: Itsasondo

Pare-parean eseri berri zaigun amonatzaren hauskortasunak bihotza bigundu dit. Bere hatz dardartietako batean irmoki itsatsita dagoen urrezko eraztun-pareari begira nago. Alargunduta

egonik ere maiteminduta jarraitzen duenaren salatari dira biak, bata besteari lotuta. Berarekin darama senar zena leku guztietara, hari lotuta jarraitzen du. Maiteminduta. Edo ez. Agian, ez dago maiteminduta; agian, aspaldi utzi zion maiteminduta egoteari; edo, agian, ez zen inoiz maiteminduta egon. Agian, ez du sekula hori auzitan jarri ere egin, ez ziotelako horretarako aukerarik eman. Betiereko maitasuna bakarrik existitzen dela erakutsi ziotelako. Baina zoriontsua izango zen?

Eta zu? Zoriontsua al zinen amaren ondoan, betiereko maitasunaren eskema zurrunaren barruan? Agian bai. Agian ez. Sekula ez diot neure buruari galdera hori egin, oraintsu arte. Agian zeuk ere ez, harik eta beste haize bortitzago batek hartu zaituen arte, harrizkoa zirudien gaztelu perfektua hankaz gora jartzera eramane zaituen arte.

Min ikaragarria egin didazu. Bihotza labana handi batez zulatu didazula iruditzen zait, eta odolusten ari naizela poliki-poliki. Gorrotoa da nagusi nigan, zukanako gorrotoa sentitzen dut. Baina nor naiz ni zuk nor maitatu behar duzun esateko? Ni zure alaba izango naiz, betiko. Baina ama? Hark zergatik izan behar du zure maitalea, betiko? Nork esan du hori?

Ulertu egin nahi zaitut!

Hurrengo geltokia: Legorreta

Leihotik begira jarraitzen du amak, bihotza horrenbeste kolpatzen didan begirada galduarekin. Azken hilabete hauetan, ez dut bestelako begiradarik sumatu bere aurpegian.

Tunelean sartzearekin batera, bere betzuloak ikusi ditut trenaren kristal beltzean islatuta. Beldurra eman didate. Hezur eta azal gelditu da. Nerbioek jan dizkiote iraganean horrenbeste erakartzen zintuzten kurbak. Zure erruz! Zuri apetak eman dizulako beste kurba batzuk probatu behar dituzula!

Dena eman zuen zuregatik, familia perfektu bat eratzeagatik. Ikastolako lanpostuari uko egin zion, Anderrek eta biok haurtzaro ezin hobe bat izan genezan eta zuk inolako eragozpenik izan ez zenezan lanean gora eta gora egiteko. Ez zizun sekula santan aurpegiratu berak ere -zuk bezala- lanean gora egiteko izan zezakeen aukerari muzin egin izana.

Eta orain, zer? Trapu zahar bat bezala utzi duzu izkina batean, inolako gupidarik gabe. Beste norbaitetaz maitemindu zarelako. Beste norbaitek gehiago berotzen zaituelako. Besterik gabe. Egun batetik bestera, norabiderik gabe utzi duzu bere bizitza. Erabat galduta dago, noraezean, egin diozuna asimilatu ezinik. Ez da gutxiagorako!. Ezegitekoren bat egiten badu, zu izango zara erantzule bakarra! Zerri halakoa!

Hurrengo geltokia: Ikaztegieta

Txartel-zulatzaila sartu da atetik, bere betiko traje gris perfektuarekin. Gizartearen zurruntasuna gogorarazi dit beste behin ere. Sistemaren kate sendo gaiztoei helduta biziko da hau ere. Errazagoa izango zaio bestek ezarritako bideari isil-isilik jarraitzea, pentsatu gabe, ezertxo ere auzitan jarri gabe. Baina nik ez dut grisa izan nahi, ez dut inoren menpe bizi nahi. Askatasuna maite dut. Baita zuretzat ere.

Txartel-zulatzailaren buruaren gainean, atean itsatsita, pegatina bat dago: "Zaintza partekatua nahi dugu. Berdintasunaren alde. Tolosaldeako Gizon Bananduen Elkartea". Ni ere berdin zalea

naiz. Nik ere emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna dut amets. Horregatik, nire indar guztiarekin aurre egin nahiko nioke amorru zital honek etengabe belarrira xuxurlatzen didan hitz madarikatuari: mendekua, mendekua, mendekua, mendekua, mendekua...

Badakit injustizia bat dela amari gertatu zaiona: bizitza hankaz gora jarri zaio egun batetik bestera. Orain, gorriak ikusi beharko ditu berriz ere lan-merkatuan sartzeko, erabateko autonomia emango dion lan duin bat topatzeko. Baina badakit, baita ere, injustizia bat dela zuri, urte hauetan guztietan baldintzarik gabe zaindu eta maite izan gaituzun horri, gure zaintza ukatzea, besterik gabe, ama ez den beste emakume bat maite duzulako.

Ziur naiz zuretzat ere gogorra izaten ari dela hau guztia. Azken finean, ulertzen zaitudala uste dut...

Hurrengo geltokia: Alegia

Alegikoa da zure maitale berria, ezta? Sekula ez zait gustatu herri hori. Ezta bertako jendea ere. Gaur ziurtasunez esan dezaket, gainera, oso trebeak direla alegitarrak bake-bakean dauden familiak suntsitzen eta noraezean uzten. Baina, noski, itsua da maitasuna. Maitasunak ez du adimenik; bihotz-bulkadak dira nagusi maitasunean. Edo hobeto esanda: sexu-bulkadak. Zu zara horren erakusgarri. Zerri hori!

Ezpainei hozkaka nago, horixe da eta barnean sentitzen dudana sua geldiarazteko modu bakarra. Amak diru guztiak zurrupatuko al dizkizu! Horixe besterik ez dizut opa! Gorrotagarria zara! Ozenki esango dut epailearen eta mundu guztiaren aurrean gorroto zaitudala! Ez dudala zurekin minutu bat bera ere pasa nahi! Ama defendatuko dut nire indar guztiarekin! Sufritzen ikusi nahi zaitut! Ez duzu besterik merezi!

Hurrengo geltokia: Tolosa

Nazkatu naiz oraintxe ahots monotono eta gogaikarri hori entzuteaz. Ia ordu laurden bat daramat aldiro-aldiro nire aldartea aldatzen duen neska-ahots automatiko bat irensten. Ezin dut gehiago. Noiz arte egon behar dut ezbaian? Erotzeko zorian nago!

Eserlekutik altxa eta trenaren irteera aldera jo dugu amak eta biok. Bost-hamar minututan Epaitegian izango gara, aitari mendeku hartzeko prest.

Balaztada luze eta gogor batek abisatu digu iritsi garela Tolosara. Azken ordu laurdenean garun-bihotzetan barreiatu zaizkidan ideia guztiak nahastu zaizkit. Treneko ate zabalak irekitzearekin batera, gizon gazte baten aurpegi kezkatiarekin egin dut topo. Ume-kotxea trenera igo ezinda dabil, semetxo zaharrena alboan duela. Lagundu egin diot, eta eskerrak eman dizkit irribarre umil batekin. Aita perfektuaren traza hartu diot. Etxeko lanen eta zaintza-lanen pisurik handiena bikotekidearengan uzten ez duen horietakoa izango dela iruditu zait. Edo ez. Agian, bananduta egongo da, eta umeen zaintza partekatuko du bikote ohiarekin.

Bagoaz, epaitegirantz, Tolosako Auzialdiko eta Instrukzioko 2 zenbakiko Epaitegirantz. Ez dut iritsi nahi. Behingoagatik bada ere, atsegin ditut eta konplize ditut amaren pauso astunak. Lehengo begirada berberarekin jarraitzen du, txintik esan gabe. Badirudi ez diola ezerk eragiten. Gustura emango nioke astinaldi bat, blokeo gaizto horretatik ateratzeko balioko lukeela argi izango banu.

Iritsi gara. Hemen gaude. Tolosako Auzialdiko eta Instrukzioko 2 zenbakiko Epaitegiaren aurrean. Errespetu handia ematen dit. Grisa da. Zurruna. Blokeatuta nago, sarrerara iristeko dauden hiruzpalau eskailerak igotzeko indarrik gabe. Ezin dut.

“Ez naiz epaitegian sartuko, ama. Ez dut aitaren aurka deklaratu”.

Amaren begirada galdua eraldatzeko gai izan ez diren hitz aski neurtu eta aztertu horiek jaurtitzearekin batera, aske sentitu naiz. Azken asteetan zehar zainetan barrena sumatu dudana odol irakinaren azken burbuilak sentitu ditut nire barnean.

Badakit amak ulertu egin nauela. Bera ere, ni bezala, ezbaian egon delako. Berak ere, begirada galdu ezin ulertuzko horretan murgilduta, ezbaian eman dituelako azken hilabeteetako, azken asteetako, azken egunetako infernuzko minutu eta segundo guzti-guztiak.